Izozmendiak

Juanra Madariaga

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2003 Juanra Madariaga
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2003ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

IZOZMENDIEN XEDEA

Kresalean barrena doaz,
igarokor,
ur geza daramatelarik.

EZ LIRATEKE

Hegaz bageneki
areka okerrik ez litzateke,
zentzuaren hilobirik ez,
onestasun pozoitsurik ez,
lur arrakalatu idorrik ez,
konploteko ukabilkadarik ez,
musuen opakotasunik ez,
gezur klaustrofobikorik ez,
egia hilberrirako koioterik ez.

Hegaz bageneki
miseria-koagulu hau ez litzateke,
ezetz hermetikorik ez,
bihotz herdoilkorrik ez,
hematomaren hedadurarik ez,
bizitzaren desbaliotzerik ez,
deslai sorturiko besarkadarik ez,
begiraden despotismorik ez,
zure faltaren haginkadarik ez.

Ez lirateke hegaz bageneki;
baina, gaur ere, kalera irten naiz.

TOMATE HILAK

Dago aspaldikoa dela adiskideak oparitutako
Extremadurako olio botila handia.

Dago aspalditik erabiltzen duela
marka bereko olio berde bera tomateekin.

Tomate berriak aiztoz ebaki bakoitzean,
aspaldi hitza datorkio burura, zati eta zati.

Aspaldi da ikusi ez duela baina gomuta
diastole sinkronikoetan agertzen da kolpeka.

Amaitu zaio aspaldian zabaldutako olio botila,
eta ez dator tantarik tomateak labaintzera.

Dago gomutak ez direla inoiz ere ezabatuko,
platerean galduko den gatz apurra bezala.

Buruz behera jarri du botila oliontzi gainean,
azken tantaren bat ateratzeko ahaleginetan.

Aspalditik isuri beharreko tanta hori
ez da botilatik inoiz aterako.

IRAKASLEAK

Orain dela hogei urte izan nuen frantses irakaslea
hil egin dela esan didate.
Emakume txikiak,
azentu zirkunflexuarekin bekainetan,
ezpain borobileko letrak egiten zituen,
ahoskera bereziko irriak.
Minbiziak jota hil dela esan dit gaur
hainbeste estimatzen dudan matematikako
irakasleak.
Bera depresioak jota dagoela ere esan dit.
Je suis désolé esan du gero negar zotinka
matematikako nire irakasle zaharrak.
Je suis très désolé.

KOLEKTIBOAREN AMAIERA

Arrain gorriak alfonbraren gainean daude,
ito-dantzan olatuen figurak egiten.

Dortokak hozkailurako bidea hartu du,
ezjakintasun itxurako aurpegian aldaketarik gabe.

Katua teilatura igo da eta, hegian jarririk,
ez ditu begiak kentzen irensten duen amiltokitik.

Perikitoak amamaren jostorratza hartu du
eta harakiria egiten saiatu da hirugarrenez.

Labezomorroak sukaldera igo dira eta
su elektrikoaren plaka gainean salto egin dute.

Argik, etxeko txakurrak, hauspo batek bezala
usainka,
errekaraino jarraitu ditu urrats ezezagunak

eta hogeita bosgarren bueltan haginka
harrapatu du bere buztan iheskorra.

Jainkoak ezin du gehiago jasan
eta bere buruaz beste egin du auzoko zineman.

Munduaren amaiera datorren seinale,
esan dit aititek etxe aurreko kadiratik.

Nik bizarra egiteko labanarekin jugularra neurtuz
sinestea beste erremediorik ez daukat.

URA DARIO

Yukio Mishimaren gorputzari ura dario,
begietatik antzarak ateratzen zaizkio,
eskuetan mahatsak ditu estutzen,
ahoaren ertzetan eztia doa labainduz,
besapearen koban dago ferekaren sorburua,
belarrietako bideetan barna denboraren hitzak,
bizkarrezurreko desertuan izango faltsuaren
markak.

Yukio Mishimaren aurpegia lisatzen duen haizeak
ekarri dizkio gomutak,
aulki batean jesarrita balego bezala.
Inora ez doan haizeak.

PLATANOA ETA AITITE

Platano mailatuari begira dago aitite.
Orban marroi handiak dituen horietariko bat da.
Okaranez, mandarinez inguraturik dago.
Esku artatsuez hartu du aititek.
Bota hori, aitite, alferrikaldurik dago eta.
Denok begira lotu gintzaizkion
esku artatsu haiekin zuritu bitartean
esan zuen arte:
Ustelkerien barruan muin gozoa izaten da.
Platanoa, barrutik zuri-zuria zen,
untxi larrutu berriaren azala lakoa.

AURRIAK

Sortu zinen hazia,
gurutzaturik duzun izena,
izkiriatu dizuten estrata,
jasaten duzun arnasa,
lantzen dituzun eleak,
ondoan jesarri zaizun bizia,
akuilatzen zaituen sutautsa,
mugatzen zaituzten aurriak,
odolustu zaizun amodioa,
hauskortu diren musuak,
orain aipatu dituzu, behar ez denean,
guztiez arnegatuko baitzara laster batean.

Eta aurriak hitza errepikatzen da
zure ahoaren engranajean.

EZ DIRA

Ez dira bide guztiak bide berdinak,
ez dituzte txori guztiek hanka gorriak edo horiak,
eta umeak itotzen dira lo hartu ezinik.
Zure ahoak trapezio forma hartzen du
ezpainetan musua marratzen duzunean.
Ez dira guztiak arroz-soroaren aurpegira makurtzen,
batzuek hodeiertza so egiten dute.
Ez da ikara haizeetan nabaritzen den lantua,
ez eta elausoa mendien kode tristea eta ulergaitza.
Kanabera sarrietan ez dira igel guztiak aztoratzen
eta zure sexua ez da ardo zaharraren arreba.
Zure begiek Boudhanath pagodaren misterioa galdu
dute.
Ez dira bide guztiak berdinak
urrats bakoitzean amets egiten duenarentzat.

GANDIAGAREKIN

Zure presentzia,
gabeziaren gabezia,
inondik inora ez doana, dagoena,
harria bezalako argia,
argietan argiena,
ilunpetan ilun basatia,
barruan hain isil,
urrunean hain bortitz,
behar ez dudanean krudel, zimel, berri,
behar dudanean, kareharri, boli, ele.

Erabat geldia nire sutondoan,
hain telurikoa paperean,
nire aberriaren bataioa,
sintagmaren hirugarren dimentsioa,
denok bildu gintuen salmoa,
inoiz ihes egiten ez duen aingeru bakarra,
atzera ezina den bidea,
ez garenaren hondarra,
izango garenaren izangoa,
zure presentzia.

URTUKO DEN MUGA

Ez du ahanzturak atsedenik,
ezta isiltasunak itoko duen nekerik.

Ez du tristeziak bizitzaren zaporerik,
ezta heriotzak urtuko duen mugarik.

Bizitza osoa zu lurperatzeko,
eta ez du denborak nire galera barkatzeko gogorik.

SENTSAZIOA

Sentsazio bat da nire pentsamendua,
bere kabuz lan egiten duen makina,
zaratarik gabe.
Ez du nire izena kontuan hartzen,
ez du nire mendetasunik.
Endelegatzen ez ditudan ekintzez
elestatzen dit eta, hartara,
berriro neroni ordezkatuz
idazten ditu gerora laborriz,
doiluturik, irakurriko ditudan lerroak,
mamuak lehen aldiz ikusiko banitu bezala,
deseroso sentiaraziz
harik eta osatugabeko zerbaitek
espazio degradaezina
hartzen duen arte.
Orduan sentsazioa agertzen da berriz.

IZANGO NAIZ

Izango naiz bat.
Itsasoaren tirainetan, kostatik urrun,
txorien pausaleku bihurtuko dena, sargazoen
babesleku.

Izango naiz bat.
Eskukada bat lur, ahurka berriztuta zabalduko
duena,
lehortea gerta ez dakigun.

Izango naiz bat.
Ur-latsetan behera goroldio eta ezpatabelarren
mezuak
deszifratzen jakingo duena.

Izango naiz bat.
Betetzen ez diren gure ametsen zerrendagilea,
tristeziaren zimurren sailkatzaile betierekoa.

Izango naiz bat.
Oreka eta desorekaren arteko aberria,
beldur eta pobreziaren arteko marginalia.

Izango naiz bat.
Hizkuntzaren txakur amorratuaren tiroa,
politikaren gezurrezko jauregirako lurrikara.

Izango naiz bat.
Behazuna eta izerdia lehortuko dituen eskua,
odola eta adurraren koloreekiko arte abstraktua.

Izango naiz bat.
Arimen argi berriaren asmatzailea,
hildakoen totem ikusgarria.

Izango naiz bat.
Jainkoaren semea eta bertutearen alaba.
Islamen morroia, Budaren martiri zoroa.

Izango naiz bat.
Haragi zornatuaren aldarean jarriko den
poeta berrien ikusle begigabe isila.

Izango naiz bat.
Ihesaren leizea, kartzelaren leihoa,
abestiaren polifonia, dantzarako herrena.

Izango naiz bat.
Izozmendia, laminen memoria, ihia,
izango hutsalean nire bila arituko den aingeru
galdua.

Izango naiz bat.
Katea, zutarria, naufragioa, segada, zure uhala,
ezerez absolutuan kondena nazaten.

PIZTIEN AMODIOA

Eta honela izan zen.
Hatsalbo jartzen zen burua.
Desoreka zer zen deskribatzen zuten
zangoen mundua urrun zegoen.
Emozioaz Jainkoak beste endelegatzen genuen.
Hura zen benetako amodioa.

Baina errinozeroak zu baino fidelagoak dira,
elefanteak zu baino askoz sentikorragoak,
kide hilak utzi behar direnean
memoria ahaltsu horretan gordetzen baitituzte
negar malkoak,
une haien magia betierekoa.
Eta hori ere benetako amodioa da.

HARI ZURIA

Urte histuen buruan
zer egin ez dakizula egonez gero,
zure begiratu berdea higaturik edukiz gero,
lotu ezazu ateko sarrailan hari zuri bat
eta abiatu zaitez jaberik gabeko basoetara,
murgildu zaitez zetazeoen itsas bareetan,
egin ezazu hegan gezurren gaineko altueretan,
begira adi-adi inoiz menperatuko ez duzun
munduari,
entzun ezazu sumendi ortodoxoen min samina,
arnastu bakardadearen atmosfera,
jo ezazu eguzkiak punitutako ordokietara
eta han kausituko nauzu,
zure zain edo zure bila egongo naiz
eta apurtzeko ordua iritsiko zaio hari zuri horri.

ZIMURRAK

Komuneko ispiluan ikusi ditu ezpainetako
zimurrak,
gelan atzo botatako praken zimurrak,
eta gortinaiaren zimur pasiboak,
mahaian herenegun zatitutako
tomate helduaren zimurrak,
mesanotxeko kajoian lagatako
bertso zentzugabeen zimurrak,
bere sabel dilatatupeko zimurrak dutxa azpian,
bere memorian iragandako une ororen zimurrak,
eta ohean, orain,
zianuroari eta zure egonezaren zimur likitsei
begira dago Quiroga.

BESTEON UHARA

Besteon uhara da bilatzen duguna.
Nire burua aurkitzen dudanean ez naiz ni izango,
ikusiko dudan filma beste batek
grabaturik balego bezala ikusiko baitut.
Nire bizitza luzeegia izan da orainokoan
eta ez uztezko punturaino iritsi naiz dagoeneko.
Honaino ailegatzeko itxaroten egon naiz luzaroan
eta atzenduriko irudi pilaketak itoko nau.
Orain entzudazu, azalduko dizut:
Ahanztura gure sentimenduen ukatze ahaltsuena da,
eta hau ez da dokumentaletan agertzen.

HAUTSA

Airean,
unibertsoko planeten antzera,
grabitaterik gabeko hauts ñimiñoa bezalakoa naiz.

Harat-honat
termika ikusezinen pentsutan
dagoen molekula hutsala bezalakoa naiz.

Eguzki izpiek,
latitude egokian jartzen denean,
sortzen duten piztia mikroskopikoa bezalakoa naiz.

Zure arnasak irentsi
edota
hormaren kontra leherraraziko nau.

BAKARDADEA

Aspaldian Kolonbiako oihal zati koloretsu bat zeneukan
iltze isolatu horretatik zintzilik.
Oihala galdu duzu honezkero baina iltzeak
hortxe segitzen du, horman sarturik,
egarriturik,
inguruari esker.
Jarri ahal diozu beste margolan bat,
Kleerena, Cezannerena, edo besterik ezean,
aitite zaharraren argazki arrea.
Biluzik dago.
Baina ez duzu zer eskegi,
zer altxatu altura horretara,
zer zintzilikatu,
aspalditik dago dena erorita,
lurrean botata,
mundu akitu bat bezala,
eta iltze horrek, nolabait,
zure ezintasuna berresten du,
modu irmo eta tragiko batean.

Horma guztietan ondo zintzilik dagoena zokoetan barreiaturik dabilen bakardadea da. Besterik ez.

EZIN BAZTER DITZAKEDAN HITZAK

Harritu naiz museoan
birzikla daitezkeen elementuez osaturiko
artelanekin, margolanekin.
«Materiales de desecho» izeneko bilduma
ederra izan da.
Kartoia, kableak, plastikozko edalontziak,
latorrizko ontziak.
Artista fin hark dena darabilela esan nahi dut.
Nik, ostera, ezin bazter ditzakedan hitzak ditut.
Gomuta, zenit, bihotza, detritu, marrubiak, autopsia,
galtzerdi.
Egunerokoak dira nire lana burutzeko
zerrendatzen ditudan hitzak.
«Materiales de desecho» izenekoa ezin lortu
horrelakoak erabiliko ez banitu.
Zure musuak,
zure gorputza,
zure begirada.
Zu.
Eta hauek ezin birzikla daitezke.

KOTOI ZIKINA BEZALA

Kotoi zikina bezala dago ortzia Sestao aldetik.
Ur arrean jaurti ditugu asmo onak
eta orain gizon berriak garela esango dute.
Bost urte zitueneko koadernoak errebisatu ditu
Arestik
zaramontzira bota baino lehen.
Marra finez eginiko animalia basatiak
agertzen ziren azalean.
Barruan inperfekzioak.
Bizitzaren kalkulu eskasak, isekak,
laudorioak eta zapuzteak,
garbiketak min eman dio,
zuhaitzaren adar kraskatua sentitu da.
Ia erortzear dagoen adar horrek
ortzitik hurbilago egon nahi du
abaildu baino lehen.
Berlotu sendo.
Bera, ihesaren kontrako hori,
horrela legoke baina
kotoi zikina bezala dago ortzia Sestao aldetik.

PROBISIONALA

Wolfe egongelako besaulkitik altxatu da
lerro batzuk idatzi ondoren.
Hortz-eskuilan pasta jarri du
komunera sartu bezain laster.
Oso gogor igurzten badu mina hartzen du oian.
Xaboia kentzeko urez bete du ahoa.
Gora eta behera astindu ondoren, gura barik,
konketatik kanpo bota du.
Ohea da segurua den toki bakarra,
burkoa, artean erosteke, probisionala den arren.

EZ DAKI

Ez daki zer egiten duen hemen.
Dena gertatzen da begietan barrena.
Inoiz entzun dituen ahotsek
egin behar duena esaten diote etengabe.
Ordua eskatzen du eta
ordua ez da inoiz ordu bera.
Segundoak heriotza bera baino arinagoak direla
uste du, eta bizitzan egin nahi duena
egiteko astirik ez duela izango
pentsatzen hasia da.
Egia esan, betidanik pentsatu du.
Denak ametsa dirudi, baina ez daki amesten
eta ernegatu egiten da.
Lehen, hitzak idazten zituen,
gogoratzen zituen denak,
gero hasi zen hitz haietako batzuk errepikatzen,
gero eta hitz gutxiago.
Orain ez du idazten.
Lanparak margotzen ditu sutan diruditen laranjak.
Bi aldiz moztu ditu besoetako zainak.
Galdutako amodio batengatik dela dio,

horregatik,
eta zer egiten duen hemen
ez dakielako.

UZTEN DUDANA

Sar ninteke
erietxe hatsak gela harturik ez baleuka,
markoetako sitsen zulo borobiletan
sartzeari beldurra ez banio,
arrain horien erraietako pigmentuez
karminaren plagioa egin ez bazenu,
leihoetako kristalen lekuan
erradiografiaren mututasun hermetikoa jarri ez
bagenu.

Sar ninteke
baina kameleoien labirintoa dirudi
zure gorputz moketatuaren eskaintzak,
sar ninteke baina doberman
usaina dario zure aluari,
sar ninteke baina mundu infektatua
baino ez da molokot honen gorpua.

Sar ninteke
urrats batzuk apenas emanda,
baina zein liteke aldea?

Dena berdina litzateke
nire begirada atzera luzatuko banu
uzten dudanari neurria hartzeko.

UME HILEN BELDUR

Ume hilen beldur naiz gauetan
eta baita lepo bueltan katerik ez duten
txakur beltzen beldur ere.
Esne ontzietatik modu lotsagabean
begiratzen dizuten labezomorroen beldur naiz.
Ametsetan ni baino arinago korri egiten duten
aurpegibako mamuek ikaratzen naute,
eta zezenen beldur ere banaiz,
imajinatzen dut adarra haragian sarturik, mintzen
artean,
angelu ezinak eginez eta odola.
Leize-zulo batean buruz behera
jausi eta zirkin ñimiñoena eginda
beherago zoazela sentitzearen beldur naiz.
Autoarekin erreka arre batean murgildu
eta atea ireki ezinik, ito eta hiltzeko beldur ere
banaiz.
Baina batez ere nire baitan bizi eta menpean ez
dudan
munstro ernegarri eta ezezagunari diot beldur.

Horri,
eta laster batean izango ditudan
minbiziaren analisiaren emaitzei.

HOBE MILA BOTOI

Kremailera zabaldu zenion
eta amodio guztia jausi zitzaizun zorura.
Egia esan eta hirurogeita hamar aldiz
zazpi gezurtatuko balu bezalako
begirakunea jartzen zizun.
Irribarre egiten zuen,
agertzear zegoen zauri bolkaniko hura
ikusiko ez balu bezala.
Mila aldiz esan zenion,
berak ez zuen deus ere ulertzen baina.
Eta oraindik, ikusten duzun bakoitzean,
arrainak tripan dabilzkizula,
azaltzeko gogoa egiten zaizu,
baina hura ihesean dago,
zure isiltasunetik, zure ahotsetik
kremaileradun bihotz horretan gordetzen dizunetik
ez baitu deus ulertuko
zuk ulertzen duzun bezala.
Deus ere ez.
Eta zure zorigaitzaren zioa bera dela
pentsatuko du emakume horrek.

INPLANTEAK

Ez naiz dagoeneko ezertaz gogoratzen.
Ametsaren ileen artean egiten dut ihes
Jainko batek oparitu dizkidan eztizko eskuez.
Larreetan, gizaki primitiboek
ilunabarra izan daitekeenari harrera egiten diote
biluzik, ikaraz,
kanaberetako zozo geldien antzo.
Hemoglobinaren koloreak nire eskuak hartu ditu
zuri inpresionismoa zer den adierazteko.
Armairu jelatuetako mendietan doa gizona,
oinutsik, errugabe, bekatuzko tentazioekin,
zeren alde jakin barik.
Ez dira zure begiak mundua desorekatzeko gai.
Ez dira nire iraganak zizelkatu nahi zintuen
pertsonarentzako inplanteak.
Lehenengo kalostroa izango zara beti.
Astiro hil nahiko lukeenaren begirada ezkorraz diot.

ARGAZKIEN DIMENTSIOA

Metalez eginiko erloju hori beti dabil atzeraturik,
argazkiek inguraturik dago eta denbora ezberdinak
eman behar ditu
argazkiei keinu egingo badie.
Inoiz orraziak jausita aurkitzen dut,
norbaitek, arautegia urraturik,
atenporala den iraultza batetik irten eta
matxinaturik, sabotaje ondo neurtua
egin izan balu bezala.
Baina horrela izanik ere, bere politika alienanteak
irauten du betiko lelopean. Tik, tak, tik, tak.
Argazkietan gu gaude aurrera begira,
balizko puntu erakargarriari begira.
Badirudi ez gatozela inondik,
atzeko infernuaren deia entzungo ez bagenu bezala.
Argazkietan, erlojuaren inguruan, umeak daude.
Eta euren txikitasunak denbora osoa irensten du.

PERFEKZIOAK

Sinkronikoa da ilunsenti zabalean dabilen haizea.
Brodadura ikusgarriak egiten ditu bere menpean
harrapatzen dituen hodei mendreekin,
eta izozmendi eta hartzak
eta zigarroak eta aluak eratzen ditu izartegian.
Cromlech-ak agertzen dira nonahi,
zerbait enblematiko eta elegiazko bihurtu nahi balu
bezala.
Zuk Roque Dalton-en itxura hartu duzu,
edo animalia itsu bat ikusi duenarena,
une batez glaziar bat pitzatzen ikusten duenarena,
dena oxigenorik gabeko memorian lurperaturik
galdutzat ematen duenarena,
Cariotakisen itsaso onbera dastatu duenarena.
Gau honetan zeu eta haizea bat bera zarete,
hil ezik
inoiz bukatuko ez diren perfekzio seguruak.

BETI BI

Gizakiak bi multzotan sailkatzen zirela
esan nahi zenidan tabernan.
Zerbait irakasten dizutenak, eta oharkabean
zure historiatik paseatzen direnak.
Lehenak txarrenak dira,
bizitza bera bezalakoak.
Azken hauek bakarrik erakusten baitizute
zer den
gorrotoa.

AMAMA ETA TXORIAK

Esne papurrak ematen dizkie neguan txoriei.
Senak gogorarazitako kontua izango da,
baina atzoko ogi gogorra
zakarrontzira botatzekotan dagoenean,
kurloi gosetien deiadarrak buruan saltoka dituela
baieztatuko luke.
Patioko atea zabaldu eta iluntasunari
botatzen dio ogia.
Ametsetan delarik, kurloi erraldoiak datozkio
bisitan,
hegotik zintzilik hiri gaineko paseotxoa ematera,
eskerrak ematera,
berak kurloiak bizirauteko konpromisoa hartu betiko
eta milaka salbu direlako eginikoari esker.
Neguko goizetan eta gauetan
esne papurrak ematen dizkie txoriei
itsua den nire amamak,
eta ezin ditu ikusi mokoka papurren gainean,
baina buruan saltoka dituela baieztatuko luke.

BARRURANTZ

Barrurantz zabaltzen ditut begiak
eta han, bat-batean, zu kausitu.

Barrurantz sakatzen ditut eta etengabeko
ekaitzetan agertzen zara zu basamortu.

Barrurantz eta ilargiaren ezkoz
sentitzen ditut zure ezpainetan musuak.

Baina kanporantz zabalduz gero
neguaren iluntasunak hartzen dit etorkizuna.

KORDATZEN BADIRA

Direla eskuak,
direla zauriak,
dela ezintasuna,
dela dezepzioa,
ez da mugitzeko gauza.
Are gutxiago
guztiak une berean kordatzen badira.

AGURTZEKO ZAPIAK

Ahalik eta urrunen bidali nahi nituzke geziak,
pinu altuetatik hartuko ditut bihotzak,
murrizketa handia egingo dut kortikoideekin,
haranetako hizkuntzetan idatziko ditut epilogoak,
belaunikatuko naiz poeta berrien ahoetan,
intxaur zaharrekin egingo ditut meteoritoak,
izurdeei mintzatzearen misterioa azalduko diet,
kea atera baino lehen amatatuko dut ilusioen sua,
okaranak planeta bihurtuko dizkizut,
ubarroien abiaduraren ariketa buruturik egongo da,
maleriaren aiztoak ez du oihurik egingo eta
gudetako gerlariek bero ekarriko dituzte eskuak.
Hasiko naiz ibiltzen eta arrainekin batera
geografiak bustitzen.
Hasiko naiz gaztetzen, keinuz, hitzez
eta orduan bataioa ezinbestekoa izango da,
abisatu gabe heldu den aro itxaropentsu berri honek
antagonikoa den estiloari uzten baldin badio
eta faltsukeriaren segadaren ordainetan
garbitutako zapiak ematen badizkit.
Astinduta, oraintxe.

MENDIETAKO IZARAK

Elurraren izara erori da
zintzilik zegoen kableetatik
eta dena estali du.
Ibili ezinik gabiltza
belaunak hartuta dituen izara honetan.
Lo egiteko gogoa ematen digu,
bere kotoizko hotzean kiribildurik lotzeko
xuxurlatzen digu tai gabe,
izarrak ikusi beharko ditugu ostera,
lo lasaian murgilduko bagara.
Ertzetan gora, bizkar-hezurdura osoa
zenbatzen gora eta gora joan ohi gara.
Malutak zerutik jaisten dira.
Oherako prest dabilen erromesaren arima
erne dabil berriz,
eta ez dugu nahi
estalpe zuririk gure ahoa tapatzea.
Asko gelditu dira
berorik ematen ez duen mendietako izaran,
itzarturik hobeto egiten baitute amets.

MUNDUAK EZ DU LORIK BEHAR

Ohera sartu orduko datoz ilaran
eltxo galduen hankatako oroitzapenak.
Nahi gabe bezala datoz,
beren arnasaren mintza diren izarak astinduz,
burkoaren hezurdura malgua tristatuz,
flexoaren argizko mapa fisikoa desitxuratuz,
—petuniak agertzen dira horma abegikorretan—.
Baina gorputzak iluntasunaren basamortua
zeharkatu nahi du,
ametsaren goldeari eutsi nahi dio indarrez
eta ohe aurrean
destainaren kodaina zorroztea baino ez dauka.
Lo egingo badu
bideak ez du lahartzerik behar.
Izan ere, munduak ez du
Pizarnik-ek besteko unadura sentitzen.
Munduak ez du lorik behar.

BIZITZAREN ATZERAPENAK

Urrats geldoak gehiago geldiarazten dio unea,
eta hala ere bizitza arinegi iragaiten delako irudia
hartzen du eskudel ugertuan eskua pausatu orduko.
Luzatzen du begirada zubirantz
baina urrunegi dago.
Ez daki gaur etxera helduko ote den.
Medikuak lasai hartzeko esan dio,
arnas faltak arruntak direla,
bularreko mina pasako dela.
Begi grisagoek ez dute apenas ikusten,
baina eskudelari eutsita erlojua begiratzen du
eta gaizki dabilela konturatu da.
Atzeratua, dio.
Ezin du definitu zertako dagoen atzeratuta.
Atzeratuta zerekin konparatuta?

NON ZAUDE

Txikitan, ezpondatik behera jausi nintzeneko hartan
antzeko mina sentitu nuela dut gomutan.
Eskutur okertuak metalezko mina irradiatzen zidan
besoan gora, eta zainetan erretzen zen.

Lehen ere antzekoa sentitu dut eskuan
iltzea sartu didatenean.
Lehen kolpean batez ere,
eta gero min irradiatua,
lokietara heltzen zaidana.
Ezkerrekoan ostera, ez da hainbesterako izan,
agian, mailua sostengatzen eta
kolpatzen duenaren begietan malkoak ikusi
ditudalako.
Agian mina, partitua sentitu dudalako
edota konortea galtzekotan nengoelako.

Txikitan, ezpondatik jausi nintzen
une hartako desio bakarra
nire ama etorri eta besarka nintzala zen.
Orain ez dut besterik desio.

BIZITZA ZER DEN

Rolan Barthes-ek esan zuen, oraina,
denbora zail hori,
angustiaren zati bat baino ez dela;
eta nik azpimarratu ez nuen liburu bateko
lerro zahar batean,
Bertolt Brecht-ek zioen, bizitza
arbitrarioki aukeratzen diren
uneen metaketa bat dela.

Oraina,
ezer itxaroten ez duenaren itxarote gogorra,
angustia eta bizitzaren arbitrariotasuna,
gure eguneroko albistegia osatzen duen
publizitate garestia,
gure borondatetik urrun nahi genituzke
destino ekidinezinak.

GABEZIAK

Sukaldeko harlauzek esango dizute esna zaudela,
hozkailuaren ateari itsatsita
esnea identifikatzen saiatzen bazara.
Argi-iluntasun eskasean, gaueko ordu txikietan,
esnearen zurrutadak areago hozten zaituenean
hasi zara argudiorik gabeko pentsamenduetan.

Zertan den bizitza. Alferrikaldu duzun bizitza,
alferrikaltzen ari zaren bizitza,
galduko duzun bizitza.

Bat-batean, ziztada batek hartu dizu bularra,
hiena zaharra bihotz ondoko bularrera doa.
Ikaraturik ez duzu zirkin ñimiñorik ere egiten.

Mina badoa. Ez da ezer izan.
Gero, ez dut hil nahi esaldia buruan duzularik,
konturatuko zara ez duzula pentsatu
galduko zenukeen bizitzan,
barkatu beharko zizkizuten bekatuetan baizik.

Bizitza hau da,
esan dizute sukaldeko harlauzek.
Gaueko hozkailuek,
zure gabeziak erakusten dizkizute
berriz.

GURE MISERIAK

Gaur ez zuela argitu behar pentsatu du,
eguna ez zela urratuko.
Hain da lodi eta sarria inguratzen gaituen kea.
Hain da beltza urrundik datorren
beste batzuek arnasturiko ke hau.
Hain da isila gure isiltasunarekin
nahasten den ke hau.

Gure miseriak
dena zikintzen du.

DEFENTSARAKO POEMA

Esku nekatu baina oraino indartsuez,
igitaia hartuta kanabera luze berdeak
mozten dituenean kolpe batez,
berak maite du.

Kale hutsetan ibiliz,
izarak bezalako hitz suabeak xuxurlatuz,
ume desanparatuen aterpe bilakatzen denean,
maite du.

Bidegabekeriaren kontra altxaturik oihurik
ernegatuenak, errautsaren erresistentzian
luzaz entzungo direnak botatzen dituenean,
maite du.

Mahai zurkaiztuaren gainean, eroturik bezala,
irriak mundua gobernatzeko mila eta bat hitz
idazten dituenean,
maite du.

Besteon zaurietan ezpainak ezin jartzeagatik,
besteon odol aginduak ezin geldiarazteagatik,
iletik tiraka negar egiteraino mintzen denean,
maite du.

Aguakate bigunak zuritzeko estilo falta nabarmenak
eta mamitasunaren luxuriak
lotsagorritzen dutenean,
maite du.

Iluntzearekiko hitzorduan,
euren ume jaioberrien aurpegiez,
jango duten esneaz, ahoskatuko dituzten hitzez,
mintzatzen direnean, maite du.

Itxaropena askotan galtzen den
azken kontua dela, baina beste askotan berriro
aurkitzen den lehen beharra dela diotsonean,
maite du.

Bizitza arnasa hartze bat besterik ez dela
eta amodioa tarte horrekiko zotin tematia
dela diotsonean,
maite du.

Ametsetako oheko taiga hotzean
hurbiltzeko, mesedez hurbiltzeko eta besarkatzeko
hosto apurkorren soinuez esaten dionean,
maite du.

Autoan sartzen direnean, inora joateko,
inorak, berez, gordetzen baitu destinoaren sekretua,
eta bidean ele zaharrak irakasten dizkionean,
maite du.

Bart, erdi biluzik, paper zimurturiko begiak zituela,
zutik jartzeko, eskuak lotzeko, isilik egoteko eta
negarrik ez egiteko esanez etxetik tiraka eraman
dutenean,
maite du.

Ziegako inperfekzio espazial eta atenporalean,
tonalitate askotako ubeldurekin,
pago adar kraskatua jipoiturik imajinatzen duenean,
maite du.

Epailearen plastikozko begitartearen aurrean,
ohiko defentsako lagunen izenak,
iraultzarako tokiak, datak errezitatzen hasten
denean,
maite du.

Kondena, erruaren laguna eta
zigorra, aske izateko beste modu bat
elkarri begiratuta entzuten dutenean,
maite du.

Goiz hartan altuegi, ia zeruraino heltzen ziren
zuhaitz batzuen abaroan,
bizitzarik gabeko bere gorpua kausitu duenean,
maite du.

Lurpean, lubaki gisan
arnas sakona den lur honetan,
terminologia zaharreko agurrak malkoekin
mugatu dituenean, maite du.

Eta beste askotan esan izan den bezala,
hau ez da amodiozko poema bat.

IZOZMENDIEN NORAEZA

Kresalean barrena doaz,
igarokor,
amenazo agerigabea daramatelarik.

UME BAT SEGUNDORO

Kalefakzioa amaitu da.
Eta ez duzu konpondu behar, aita?
Amaitu da, ez dago,
beste gauza asko ez dauden bezala.
Zimbaweko ume askok ez dute urik.
Birmaniakoek ez dute zapatarik.
Haitikoek ez dute esnea inoiz probatu.
Afganistangoek belarra jaten dute neguan.
Siberiakoek behatzak dituzte izoztuta.
Patagoniakoek ez dute betaurrekorik eta
itsu gelditzen ari dira.
Mongoliakoek ez dute itsasoa inoiz ikusiko.
Indiakoek ez dute guraso hilak erretzeko adina
egurrik.
Munduko ume askok ez dute ezer,
eta beste asko, honezkero, ez daude
beste gauza asko ez dauden bezala.
Eta ez duzu konpondu behar, aita?

ANOREXIA POETIKOA

Oso gaizki moldatzen ari gara azken bolada
honetan.
Espazio fisiko guztiek izenak aldatu dituzte
eta nire erruagatik airean dabiltza gauza asko.

Ahanzturak zizelkatu ditu kaleak nire burmuinean
eta errekek zure gorputzean gora eraman dizute
odola.
Ernegaturik, mundua zabalegia dela esan didazu,
nire arrosak eta biok pikutara joan gaitezkeela.

Ez dut zure irribarrea mermeladan islaturik ikusten.
Ez dut mezu ezkuturik utziko kafearen ontzian.
Ez dituzu nire galtzerdi zaharrak berriro jantziko.
Ez dut inurriarena egingo zure bizkarrean.
Ez dituzu nire atzamarrak zure ahoan labainduko.
Ez dituzu ezpainak zabalduko sar nadin.
Ez dizkidazu sinadura bortitzak nire lepoan
margotuko.
Ez dizut izerdia garbituko.

Ez dizut entzungo gehiago eta gehiago eskatzen badidazu.
Ez nauzu berriro erabiliko.

Orain izugarria izango da zu gabe bizitzea.
Orain izugarria izango da ni gabe bizitzea.

EPIZENTROA LURRIKARAN BEZALA

Desagertzen ari zara
haizeak basamortuetako urratsak
ezabatzen dituen bezala,
urak harturiko
errotuladorez idatziriko helbidea bezala,
urteetan zehar arbelean
iraun duen palindromo hura bezala,
izozmendien beldur ihes egiten duen
iparraldeko eguzki dudakorra bezala,
arratsaldeko hareatzak
uraren azken arnasa xurgatzen duen bezala.

Desagertzen ari zara
telebistako marra zuri-beltzen atzeko
irudi higatuen moduan,
zainak zabalduz geroztik, mainontziaren tantek
gorritasuna daramaten moduan,
ikusten ari zaren zerbait sinesten ez duzunean
begiak gogor igurtzi ondoren
airean agertzen diren argi geldiezin haien moduan.

Horrela desagertzen ari zara,
abstrakzio baten zentzua bezala,
denetarako erabiltzen den keinu hura bezala,
denborak irentsitako kandela baten bizitza bezala,
balak espazioan bezala,
epizentroa lurrikaran bezala,
euria errekan bezala,
zirkuak eta trapezistak bezala,
ametsek zaharkituta.

NAHI ZENITUENAK

Nola iritsi ahal izan zinen hain koldarra izatera?
Koldarra ez da apelatiborik onena,
egokiago da hiena zorriztoa edo,
modu sinpleagoan esanda, kabroitzarra.
Nire bularretakoak altxatzen zenituen bakoitzean
maite ninduzula esaten zenidan,
likrazko nire kuleroak mihiarekin marrazten
zenituenean
ipurdian gora eta behera
maite ninduzula esaten zenidan,
nire ezpainetako distira metalikoa zure zakilaren
masajea eta relaxa izateko eskatzen zenuenean
maite ninduzula esaten zenidan.
Eta hau guztia egin genuen azken aldian
nirekin asperturik, gogaiturik zaudela diostazu,
oso bide luzea egin dugula eta
beste esperientzia batzuk bizi nahi dituzula
eta abar, eta abar eta abar.
Zer orijinala zaren! Zure maite zintudan guztiek
iraungitze data zekarten ipinita aspalditik.

Arropa berria erosi dut,
ilea motzagoa daramat, gorriz tindatua,
depilazio dermoestetikoa ordaindu dut edertzearren,
ezpainak markatuago daramatzat,
gimnasioan nabilenetik 5 kilo kendu ditut
eta baita oroimen txar asko ere izerditan.
Etxez aldatu naiz, txakur bat erosi,
gidatzeko karneta atera,
lagunen arteko babesetik elikatu.
Egin ditut zuk nik egitea nahi zenituen gauza
guztiak.
Baina begiak berdin-berdinak dira,
ez ditut koloretako lentilak jarri.
Begiratuko bazenit ohiko kolorepean ikusiko
zenituzke
urteetan izan dizkizudan betiko gorroto eta nazka.

URRUNDU NAIZ

Nire gorputza gako batzuetatik zintzilik balego legez
sentitzen naiz periferietako zaratotsek
osoki hartzen nautenean.
Isurtzen dudan ur kremosoak lasaitzen nau.
Zerbait bizirik dago nire barnean.
Arnasa laranjaren koloreaz janzten da
zotin luze eta kontrolagaitza denean.
Baina begiak ixten baditut
amnesiaren leuzemiak
bekatuen zerrenda luzatzen dit.
Ez nago zahartuta, baina
memoria belztu zait eta
ez dakit nori itaundu nire gomutez.
Hitz paralitikoak ahoratzen zaizkit,
istripu batetik salbatu balira bezala.
Ez dut anestesia gehiago nahi.
Zoriontasuna, behin tren batetik
ikusi nuen geltoki baten izena da.
Eta orain urrundu egin naiz
larregi.

ZALANTZAK

Zalantzak eraman zuen
lasterbidetik esperantzaren jaustegiraino.

Poztasun adieraztezinaren zalantzak eraman zuen.
Zalantza pozgarriaren uhara batek eraman zuen.

Hutsunearen ahoa hurbilegi zegoen,
zalantza inertzialak eraman zuen.

Urte asko pasa dira harrezkero. Orain ez luke
dudarik.
Ez litzateke hegitik begiratzera ere ausartuko.

EZ ZARA INOR

Ez zaizu inoiz gertatu kale kantoian
itxuraz ezaguna den aurpegi bat ikusi duzula
eta orduak eta orduak eman dituzula
begirada, kokots hura, soslaia eta ile
distiratsuaren uhinen esanahia
norenak ote diren itaunka, nor ote den
arras hurkoa begitandu zaizun hori?
Ez zaizu inoiz gertatu?
Horixe da niri gertatzen zaidana
zure begitartea akorduan
topatzen dudan bakoitzean.
Eta bai kuriosoa,
dagoeneko, ez zara inor.

TERMINAL

Beste amitriptyline bat hartzea
komeni zaizu,
loeragile ona da, laztana,
bat-bateko depresioaren kontra erabili ahal dela
dio prospektoak.
Insomnio, zotin kroniko, bulimia eta
anorexiaren kontra ere botika egokia dela
diote adituek.
Egokiena zuretzat.
Eta entzun, laztana, zein datu interesgarria:
normalean txakurren eta katuen
jokaera arazoetarako ere erabiltzen da.
Eta zenbat gustatzen zaizkizun zuri animaliak.

LEKEDA BEZALAKOA

Ez zegoen une klaberik,
baina atzekoz aurrera zenbiltzan
kale bete jende artean.
Zeu bakarrik,
tabernako kristal marratuaren atzetik,
distortsionaturiko kaleko argien pean.
So egin zenidanerako jaiotako ibaiak joanak ziren,
limoi aleak usteldurik zenekartzan,
ukatutako mendi guztiak lurraren pare berdinduak,
itsaso txikiak zein handiak lehorturik eta
hondoko aingura herdoildurik, agerian,
disparaturiko arrano helezinak disekaturik,
loaldi luzeko hartzak hotzak hilik.
Kafearen azken gerizpea hartu eta
kalera egin nuen nik ere.
Atarian etsipen galtzaileak ito ninduen berriz,
lekeda bezalako etsipenak,
inoiz atera behar ez nuen taberna formadun atean.

ERORIKO NAIZ

Erori naiz mezu konfliktibo batetik
eta ez dakit zer egin behar dudan orain.
Agertu naiz hutsik daramazun poltsiko horretan
eta papera birziklagarria naizelakoan zanpatu
nauzu.
Labain egin dut zure kolko-infernutik behera
eta zure eskuek lurperatu naute are beherago.

Jausi naiz B-52 batetik bidegabekeria amaigabean
eta orain ez dakit zein den nire mundu perfektua.
Amildu naiz zure telefonoaren berbarotik
eta ezin izango dut zure erantzuna aditu.
Erori naizelako, hutsik noalako, labain egin
dudalako,
jausi naizelako eta zure arantzak
nire suizidioa direlako.

DOSIA

Egun batzuetan behar bezala bizitzeko dosia
okertzen duzu eta
zubietatik tristeziak jota begiratzen diezu
ur azalean nabigatzen ari diren
gutunazal, arrain, eta amodio itzuriezinaren latexari.

Dendetan sartzen zara
damuaren perspektibaren kontrako
azken antidotoaren bila,
eta tabernetan komuneko ateetan jartzen dituzu
izenak metxeroaren keaz.

Osasun zentroetan zure izena entzun arte
itxaroten duzu,
erradiologoaren begirada transparenteak
zure hezurrak —bazenekien—
irinezkoak direla adierazteko.

Hilerrietatik abiatzen zara
bolietan dauden abizenei
aurpegiak jartzera, asmatzera,

curriculum vitae guztiak konplitzera,
gorpuen dilatazioa entzutera.

Negar batean paratzen zara gero
etxeko pasabideetan galduta,
beste gorputzik gabe,
hurrengo egunaren dosi perfektua
zein izan daitekeen hausnartu nahian.

DENBORAREN AIZTOA

Denboraren aiztoak egin dit
ondo kokatzen ez dudan saki
ikusezin hau.

Denboraren aiztoa izan da
isilaren bailara zeharkatzen behartu nauen
jainko krudela.

Denboraren aiztoak zabaldu zidan
kurritu beharko dudan
balizko bide xelebrea.

Denboraren aiztoak losintxatu ninduen,
denbora luzea eta
zabala zela esanez,

aho hartako epizentroan
dirdira zuri batek
beldurtzen ninduen artean.

Denboraren aiztoak egin dit botikaz ezin senda daitekeen zauri-zigorra.

ARTISTA ZARA

Eguneroko batailaren morroi bihurtu zara
dagoeneko.
Dutxak eskaintzen dizun lizunkeriak
ez zaitu asetzen.
Lanera zoaz tabernako kruasana ezin irentsiz eta
larruaren autopista betetzen zaizu nekeaz
egun historikoetan zehar.
Irribarre plastifikatuak denontzat doan.
Dena eklipse bat izan daitekeelako susmoa
hartzen duzu bazkaltzeko orduan,
zure urdail kontrolagaitzak
antropofago baten moduan janarazten dizunean.
Eskale temati bat izan zintezke, modu naturalean
eskale izaten tematzeko eta
paseoan neskak ikusteko.
Eta hau guztia pentsatzean arduraturik
itzuli zara era duinean zure etxearen hoztasunera,
gelditzen zaizkizun mandarina nardagarriak jatera.
Artista izatea nahi zuen amak eta
ohera orduko, gaztetako eraztun guztiak kenduta,

denbora haragitsuan
marka zaharkituak kausitu dituzu.

Baina lasai, artista zara.

GAU ALDREBESAK

Zabaltzen ditut leihoak iluntasuna kalera atera
dadin,
burkoaren azpian asunen kiratsa garbitzen dut,
ezin amata dezaket mesanotxeko lanpararen
zurrumurrua,
azken orduko albisteei musika jartzen diet,
koadrozko pijamaren nahasmenak zorabiatzen nau,
sukaldeko arrautzen hondamendiak tristatzen nau,
ez ditut mihiseak guztiz bustitzen,
ez zaizkit betazalak goitik behera ixten.

Ohera sartu eta hurrengo goiznabarra arte
berehala esnatzen naiz.

ARRATSALDE USTELA

Arratsalde ustel hartan
azken kafea hartu zenuten kafetegia
itxita ikusi duzu gaur.
Alokatzen da dio eguzkiak jandako kartelak.
Eta orduan pentsatu duzu
barruan gelditu ziren fereka galduak ere
alokatzen direla,
mundu arrearen prodijioen artean
bere eskutik at ez uzteko erregu samina
alokatzen dela,
tai gabeko odol-kolpe bortitzak
burmuinera igorri zizuneko dardara ere
alokatuko dela.
Baliteke horrela izatea.
Ezustez beteriko bizipen mingotsak ere
alokairuan topatu zenituela ziur zaude orain.
Bestela, zer dela eta bakardadearen bidetik
eginiko lehen urratsekin batera,
zure bihotza alokatzen da dioen
tristeziak jandako kartela?

SEKRETUAK

Beti kontatzen zenituen sekretuak doan.
Beste azal baten kantoian jasotako
limosnaren mezuarena,
zubi hartako amildegian
heriotzaren musua sentitu zenuenekoa,
goiztiri bortitzenetan
etxeko epeltasunak negar eragiten zizunean,
zure bihotza dagoeneko brontzezko kutxatilan
gordetzen duzula gauero,
musuen enkantean
preziorik altuena ordaindu duzula beti,
bilduma osatzen ari zarela,
eta orban askoren egile maltzurren izenak,
drogak zuritu dituen
patu txarreko lagunen malkoena,
heriotza askoren gorrotoaz...
Beti kontatzen zenituen
zure sekreturik gordeenak doan,
iraganeko inventarium iluna, curriculum isila.
Noiz kobratuko didazu?

GOIZ GRIS HONETAN

Amesgaiztoaren ondorenean altxatu
eta ohe ertzean lotu naiz izerdi batean.
Komunerako bidean
inoiz pentsatzea otuko ez zitzaidakeen huraxe
egin dut tupustean.
Zure amodiozko gutunak balkoian erre ditut
goiz gris honetan.
Errautsei begira nengoela,
haizeak jo du eta paper zati beltz erreak
zerurantz barreiatu ditu.
Hor zure maite zaitut, laztana, behar zaitut,
besarka nazazu guztiak,
zure boligrafozko musu guztiak
airean dira bat-batean,
hildakoen errautsak aireratzen diren modu berean.

EZ NABILELA

Erakutsidazu ez nabilela alferrik,
bideetako seinaleek zerbait adierazten didatela,
gaumin haren musuen hiztegiak oraino balio duela,
zure ezpainetako mailukiek
ez dutela zerikusirik txiklearekin,
munduaren amaiera
zure besoetako linboa bezalakoa dela.

Erakutsidazu ez nabilela alferrik,
isiltasuna jakinduriaren sari perfektua dela,
nire imanak direla
zure gorputzaren metalak,
bizitzaren labirintoa umeen jolasa dela,
munduaren amaiera
zure besoetako segada bezalakoa dela.

ZATI EZDEUSA ZARA

Inoiz bizi izan zara gezurraren zintzurretan,
han balego bezala urkaturik gauzkan egia.
Ez bilatu gehiago lur-mutur, amildegi,
leize, ordoki, malda iketsu, basamortuetan.
Hauek guztiak izan zara eta.

Guztiz endelegaezina den neurribakotasun baten
zati ezdeusa.

SINETSI BEHARKO NUKE

Sinetsi beharko nuke errekak bezalako hitzetan,
harrien arteko bideetan,
ezinbestekoa den hostoaren gaineko ihintzean,
odola xurga dezaketen esku bortitzetan,
isiltasuna baino ez den zure ahotsean,
gezurraren betaurrekoak ez dituzten begietan,
leizeak bezalako zure musuetan,
zure gorputzaren presio erabatekoan,
urrutiko kodeak dakartzaten telefono
madarikatuetan,
lortu ez dugun bizitzaren amorruan,
nire amorruan,
eskuetatik labaintzen den geometrian,
baina ezin da,
ez da inoiz horrela izan,
eta gezurra litzateke izan litekeen oro.

BIHOTZA URRATUKO

Oraindik bihotza urratu ez dizun horrek
ureztatuko ditu begietan dituzun loreak,
gorputza supermerkatua balitz bezala kurrituko
dizu.

Oraindik bihotza urratu ez dizun horri
sekula ahoskatu ez dituzun eleak esango dizkiozu,
eta gutunetan bere eskuez egingo duzu berba.

Oraindik bihotza urratu ez dizun horrengatik
modu naturalean ekingo diozu lan egiteari,
benetan gustukoa bazenu bezala.

Oraindik bihotza urratu ez dizun hau
ez duzu ondo ezagutzen baina porrotera zaramatza,
argi mortua duen eroetxera.

Oraindik bihotza urratu ez dizun horrek
ez du luze joko, eta adi ibili,
bihotza urratuko dizu.

TERMINAL II

Aldizkari horretan hauek bezalako hitzak irakurri ditut:
Schizophrenia, clonazepan eta carbamazepine,
Seasonal Affective Disorder, diazepan,
ailurofobia, galeofobia, elurofobia,
osthomolecular medicine,
haloperidol eta lithium carbonate.
Batzuk ezagunak egiten zaizkit
baina dagoeneko ez ditut hartzen,
gainera ez didate depresioek erasotzen.
Egia esan hartzen ditudanak kuriositatez hartzen ditut.
Benetan kuriositatez.
Zoratzen naute gorri, berde edo
zuriaren gainean izkiriaturik daramatzaten hizkiek.
Hartzen baditut ikasiko ditudalako ustean nago.
Aurpegiaren dardara hau ez da ezer.
Ez dut hiltzeko gogoa sentitzen,
behinola sentitu nuen,
baina orain bizitzeko gogoa daukat.
Horretarako hartzen ditut.

ELENA, COLON ETA ARIEL

Ez dut ditxosozko garbikaria inon topatzen
eta denik eta ahaltsuena behar dut.

Hortxe daude klinexak,
inoiz erabili genituenak bezalakoak,
hortxe eztiz makilatutako kakahueteak,
beti begiak itxita jaten zenituenak,
hor aurrean edateko mailubizko yogurtak,
edozein tragotan zure musuen zaporea
gogorarazten zidatenak,
eta harago hortz-eskuilen ejerzitoa,
kolorez ondo horniturik,
bakardadearen estandartepean.

Baina garbikaririk ez dut aurkitzen
Eta premia dut.
Gaur gauean nire arropa guztiak garbituko ditut
berriz, behingoz zure koloniaren usaina
eta karmin mikatza garbi ahal daitezen.
Betiko garbi ditzadan nire bizitzaren mantxak.

ZORRAK KITA

Ez dizut ezer zor.

Memoriaren zati kaotiko hauek
zuk esan gabe erosi nituen bakardadearen
merkatuan.

Haizeak harrietan bezala higatuz hustu nauzu
eta orain hur apurtua lakoa naiz sentitzen.
Suak hartuta darabiltzadan gomuta hauek
zure presentziaren azken ttanttak izango dira.

Baina zor, ez dizut ezer zor, salbu eta
etengabe jarraitzen didan itzal alderrai hori,
herenegun bortizki maitatu ninduen hori.

TXORIAK ZUBIAREN GAINETIK

Txoriek goizero v egiten dute erreka gainean.
Duen zikinkeriak ez du ezer islatzen uzten.

Nora doan ez dakit baina begietan galtzen zait.
Erreka hau bezalakoxea zara zu.

Nagoen zubitik beldurrak nago begiratzean
eta ez naiz botako, ez eroriko.

AMETSAK

Etxera joateko baimena eskatu nahi nion,
astebeterako baimena behar nuen,
familiakoren bat hilik zegoen eta.
Baina bera, larregi hurbilduta,
nire aurpegia ikertuz bezala,
laztanka hasi zitzaidan eta
mihiaz nire ezpainak kurritu zituen.
Atzera egin nuen nazkaren nazkaz.
Burusoila zen, zahar okitua,
bere bizarraren ukituak higuin ematen zidan.

Hau laugarren ametsa edo izan zen,
ostadar beltzarenaren ostean,
hondakinez jositako neska haren gorpu
ibiltariarena baino pixka bat lehenago.

Gau hartan zu ez zinen agertu.

INOR EZ

Inor ez,
zure gonaren luzemetraian parte hartzeko gai denik,
zure eskuetako olatuetan nabigatuko duenik,
zure ahoaren tunelean argia piztuko duenik,
zure hareazko geografian eskua galduko ez zaionik.

Inor ez,
zure gezur dekoratuan norberaren desanparoa
sentituko ez duenik,
zure hiztegi difamatzailean egiaren hondarra
aurkituko ez duenik,
zure laztanen aginduari, amodioa definitzeko
zure berben delirioari lotuko ez zaionik.

HARAGI GALDUA

Gutxi eginik zegoen okela jan duzu.
Adurraren bidez trukatzen ditugun ahoko entzimek
proteina desegiten duten bitartean
hortzen arteko zati deserosoak
ateratzen saiatzen ari zara mingainarekin.
Bat ahoan sentitzen duzunean
aukera bi dituzu: irentsi edo ez.
Zuk zati hori txu egiten duzu
gehiago aprobetxatzerik ez balego bezala.
Zati txiki hori neu naiz.
Etekin handirik ezin atera dakiokeen
haragi galdua.

ABISTUA

Badakit
bart nigan pentsatu besterik ez zenuela egin.
Badakizu,
belarri barreneko espiral sakon horretan
abistu kroniko eta luze horrek esnatu ninduen.

Telefono horixka desatsegina
dar-dar batean zegoen, jotzeko zorian,
zuk esan beharreko berbak
plastikozko aurikularrean jauzika,
ni ez beste guztia anatema bihurtzen.

Pertsianetako zirrikitu indiskretoetan
zure begi azarriak izan zitezkeen
pilpirak sentitu nituen,
periskopioetako begiradak balira bezala.

Beti hipaka aritzen diren etxeko hodierietan
zure zurrumurru histerikoa
nire ahoaren oihartzuna bilatu nahian zebilen,
kalefakzioari ere bihotza lapurtuz.

Horregatik dakit
bart nigan pentsatu baino ez zenuela egin.
Baina ez dakit
zalantzaren portu honetan
on ustean ala txarto aritu zinen.

DESERTZIOA

Ahanztura hartu duzu, poltsikoan sartu
eta metrora abiatu zara. Zeu ere metrora.

Azken orduko trenaren bagoi muturrenekora
eraman zaituzte ezagutzen ez dituzun legeek.

Hortxe, azken sentitu zara,
ezerezaren bidaiari,
minaren sabeletik iheslari.

Atea zabaltzen denetan kanpora
irteteko gogoa egingo zaizu. Baina nora,
zeure desertzioan ere galdurik bazabiltza.